

Edaleentzako

== == Idaztitxoa (liburutxoa)

Pradere'tar Blas apaizak egiña

Plures occîdit gula quam gladius

(Axioma antiquum)

Ezpatak bañon geyago illarazi ditu salokeriyak

(Exakun zarra)



SAN SEBASTIÁN
EDITORIAL Y PRENSA, S. A.
1921




ATV

30637

M- 68329
F- 72257

AVJ
30637





Edaleai itz bi

Gauz guziyak gure onerako egin zituban Jaun-goikoak: ardoa ere bai beraz, bear danean eta bear dan neurriyan artzen dala.

Ez ordea gu, ardoarentzat egiñak ez gerade, edota ardoaren mendean egoteko.

(*Gen.* I, 28, 29, 30. — *Ps.* VII, 7. — *Eccli.* XXXI, 32.—*Heb.* II, 7-8.)

* * *

Gure atsegin eta pozgarrirako da ardoa, ordikerirako ez.

Ardoa eman bear zayete beraz berengan itun (triste) daudenai, edota barru samiña dadukatenai.

(*Ps.* CIII, 15.—*Eccli.* XXI, 35-36.—*Id.* XL, 20.—*Prov.* XXI, 6.)

* * *

Baitaere gure osasunerako emana da ardoa, sendagai bezela. Pablo apostolo santubak orre-

— 4 —

gatik, sarritan gaïso egoten zan bere ikasle Timoteo'ri, izkidatu ziyon *ardo piska bat artu zezala*.

(*Eccli.* XXI, 37.—*Tim.* V, 23.)

* * *

Neurritz gañeko ardo eta edari gargarri guziya, edozeñentzat, puzoya da. Burmuñera jotzen du, begiyak gorritu eta illuntzen ditu, ezaguera kentzen du, ibiltzen ere azturazitzen du, etxerako bideak galdurazitzen ditu, zulora eta beste gaitzur (arrišku) askotara eramaten du, batzubetan baita ere erotasuna eta eriyotza badakazki. Espiritu santubak orregatikan diyo: *Ardoak asko ondatu izan ditu*.

(*Gen.* IX, 21. — *Prov.* XXIII, 29-35. — *Is.* XXVIII, 7.—*Id.* XIX, 14.—*Eccli.* XXXI, 30.)

* * *

Ardoa, ordikeri eta loikeriya alkarrekin oi dijoaz, iskanbilla eta ondagarri asko dakaizkitela. Geyegi bear berentzat, eta dirurik aurreratzen ez dakitelako edale eta loyak, osoro daduzkate aztuta beren etxekoak, ezerere opatzen ez diyozatela, itxura gabeko astindubak ezpadá.

Eta osoro alperrak izanik edaleak, jokuba eta aserrea besterik ez darabizkite. ¡Zenbat eriyotz egin izan dituzten edan gaiztokoak! Krisostomo santubaren esaeran *piḡti odoltḡaleak dirade edaleak, eta eḡ giḡonak*. (*Prov.* XXI.—*Ose.* IV, 11.)

— 5 —

—*Eccli.* XXXI, 38-39.—*Id.* XIX, 1.—*Ephes.* V, 18.—*Hom.* 54 ad pop.)

* * *

Adan eta Eba'ren pekatutik, beren jatorriari ondamen izugarriyak etorri zitzaizkan antzera, guraso edaleen ondorengoak ere kalte aundiyak izan oi dituzte.

Edarirako eta beste galgirotarako (biziyotarako) gurasoak zuten griña ekartzeaz gañera, baita ere gorputzaren aldetik gaitz askotarako egokitasuna izaten dute.

Edaleen ume eta ondorengoetan maiz ikusi oi dirade engelak, elkorrak, elbarriyak, birikeriyak batezere eta eroak. ¡Errukarriyak! ¡Eta zenbat aldiz birautuko dituzuten zorigabeko gurasoen pekatubak!

(*Ephes.* II, 3.—*Rom.* V, 12.—*Exod.* XX, 5.—*Num.* XIV, 18.—*Deut.* V, 9.)

* * *

Askok eta askok premirik gabe, noiznai eta oituraz bakarrik edaten dute, burmuñ eta urdaillerako kaltean. Egarririk gabe edan bear ez da beñere.

Beste askok zurruta batean guziya edateko oitura dute, eta kaltegarri ere da oitura hori osasunerako, ur utsa izanda ere edaten dana.

Piskana-piskanen, edota aldiyan txurrutaka

— 6 —

edan ezkeroz, egarriya errazago kentzen da, eta kalteak gutxiyago dirade, naiz ardoa edan.

(Sendakintzak erakusten du.)

* * *

Bukatzer a noa lan txiki au Espiritu Santu-
ba'ren itz gogoangarri oyekin:

«Ardoari ez begiratu gorriřka dagoanean, bere
margoa (kolorea) legarrean (kristalean) distiatzen
dagoanean; leunkiro sartzen da ardoa, baña sugeak
bezela ozkegingo du azkenean, eta ersugearen
antzera puzoya iřuriko du.» (Prov. XXIII, 31-32.)

¡Edaleak bada, aztu etzaitezela itz oyezaz!

BLAS PRADERE TA ARRUTI, APAIZAK.



(LUGAR DEL SELLO
DEL
OBISPADO DE VITORIA)

Por las presentes concedemos Nuestra
licencia para la impresión y publicación
del adjunto folleto, titulado *Folletito
vasco para los bebedores*, toda vez que,
examinado de Nuestra orden, no con-
tiene, según la censura, cosa alguna
contraria al dogma católico y sana
moral.

Vitoria 1 de Abril de 1919.

EL OBISPO DE VITORIA.

(Hay una rúbrica)

